



BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

2014ko memoria



AURKIBIDEA

SARRERA	1
1. BILAKAERA 2012-2014 BITARTEAN	5
2. ARTATUTAKO PERTSONAK	6
3. BIKTIMIZAZIOA SEXUAREN ARABERA	7
4. BLZ-ra JOATEKO ARRAZIOIAK	8
5. BIKTIMIZAZIOAREN ARRAZIOIAK	10
5.1. DATU OROKORRAK	10
5.2. DATUAK, BIKTIMEK LAGUNTZA JASOTZEKO ARRAZIOIEN ARABERA	14
5.2.1. Delitu orokorrak	14
5.2.2. Genero indarkeria	17
5.2.3. Familia barruko indarkeria	19
6. ARRETA JASO DUTEN KASUAK	21
6.1. INFORMAZIO OROKORRA	21
6.2. HARRERAKO ELKARRIZKETAK	21
6.3. JARRAIPENENKO ELKARRIZKETAK	21
6.4. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA	22
6.5. DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO AHOLKULARITZA	22
6.6. ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	22
6.7. INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	22
6.8. KOORDINAZIOA	23
6.9. DESBIDERATZEA	23



6.10.	LAGUNTZA PSIKOSOZIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	24
6.11.	LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN.....	24
6.12.	KANPO-AHOLKULARITZA	25
GLOSARIOA		30



SARRERA

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ) Euskadiko egitura judicial penalean txertatuta dagoen zerbitzu publiko bat da, delitu bateko biktimei arreta emateko, delitu-egitate bat pairatzeagatik ondorio psikologiko, fisiko, ekonomiko eta/edo sozialak (zuzenean edo zeharka) dituzten pertsonen, hain zuzen.

Biktimologiaren arabera, sortzen diren hainbat gairi heltzerako garaian, beharrezkoa da hau ulertzea: batetik, biktimizazioak pertsonaren alderdi guztietan eragiten duela, eta, bestetik, hori ezin dela bihurtu biktimaren identitate-ezaugarri, biktimizazioa kroniko bihurtu delako eta eragindako kalteak (sozialak, ekonomikoak, fisikoak, psikologikoak eta antzerakoak) betikotu direlako.

Biktima izan den pertsonak kalte fisiko, ekonomiko, psikiko eta sozialak sortu dizkion delitu-egitate bat pairatu eta gero, oro har, noizean behin areagotzen den inpaktu emozional larri bat ere bizitzen du, ezezaguna izan ohi den sare juridiko/penalean sartzen denean. Egoera berriari aurre egin ahal izateko, ez daki zein eskubide dituen ez eta zein aukera dituen edo zein baliabide dauden ere, ez duelako egiazko informaziorik jasotzen behar den garaian eta eran.

Jarduketa horietan informazioa eta arreta ez denez berehala ematen, doktrinak «Bigarren biktimizazio» gisa izendatzen duena gertatzen da eta esperientzia hori, askotan, delitu-ekintza bera baino kaltegarriagoa izaten da eta babesgabetasun-sentimendu handia sortzen du.

Biktimak dituen zailtasunak, sentrazioak eta igurikimenak, egun, era batera edo bestera, Justiziaren Administrazioari lotuta dauden pertsona guztiak horietaz kezkatzeko arrazoi dira; horregatik, justizian dihardutenak arazoaren berri ematen saiatuko dira, biktimaren egoera modu objektiboan jakiteko aukera ematen duen eran, eta, halaber, egindako kaltea arinduko duten ekintzak proposatuko dituzte, horiek hurbilduko gaituztelako konponbidera.

Alor honetan sortutako kezka hori nazioartean ere hedatu da eta Europako Kontseiluan, Nazio Batuetan eta Europar Batasuneko herrialde batzuetako legeetan jaso da. Hori dela eta, agintari publikoei eskatu diete erakunde batzuk sor ditzatela biktimei lagundu ahal izateko, sistema penalarekin duten harremanean eta baita biktimei indartzen laguntzeko ere, pairatu duten biktimizazioari, ahalik eta modurik onenean, amaiera emateko.

[Aurkibidea](#)

Gurera etorrita, BLZren xedea da delitu bat jasan duen biktimari edo delitu bat jasan duela uste duenari erantzun integral bat eskaintzea (alderdi sozialak, juridikoak eta psikologikoak kontuan izanik), biktimak modu aktiboan parte hartu dezan; baina horrek guztiak biktimari ez dio ekarriko biktimizazio berririk, aitzitik, berriz ere indarra hartzen eta biktimizazioari amaiera ematen lagunduko dioten babesa eta baliabideak eskainiko zaizkio. Horrela, bada, gure lanak beharrezkoa den arreta indibidualizatua eskaintzea eta biktimaren ongizatea lortzen lagun dezaketen bestelako instantzia zein zerbitzuekin koordinatuta egotea eskatzen du.

BLZ izaera unibertsala duen zerbitzua da eta arreta ematen die kaltetuta sentitzen diren, delitu baten biktima sentitzen diren gizonei eta emakumei. Bere osotasuna kaltetu dela igarri duten pertsonen indartze bio/psiko/soziala ahalbidetzen duten ekintzen bila aholku eman, informatu, babesa eman eta laguntzen du, eta gertaera horrek BLZko erabiltzaileek aurrekusi gabeko zein egoera berri ekarri dituen ikuskatzen du.

2015ean 3.000 pertsonari eman zitzairen arreta, eta horietatik 2.651 BZLra lehenengo aldiz etorri ziren. Biktimizatu direlako gure zerbitzura etorri diren pertsonen kopuruak behera egin du pixka bat, eta horrek bat egiten du, EAEn, aurreko ekitaldian zenbatutako delituen eta falten kopuru-jaitsierari buruz Ertzaintzak eskaini dituen datuekin: **«2014an Ertzaintzak zenbatutako delitu eta falten guttizkoa % 2,29 jaitsi zen 2013arekiko. Beherakada horren ondorioz, delitu-tasa ere murriztu egin da; 1.000 biztanleko 40,53 delitu/falta izatetik, 39,65 izatera igaro da. Delinkuentzia mota guztietan izan da jaitsiera, oro har, eta EAE osoan, hiriburuak eta hiri nagusiak barne.»**¹

BLZren laguntzeko zeregina, duen izaerarengatik eta esku hartzen duen esparruarengatik, edozein unetan hainbat jarduketa egitera irekita dago. Hori dela eta, 2014an, aurreko urtetik zetozen 349 auziren eta 2014an hasitako eta/edo jakindako 1.326 auziren jarraipena egin da.

¹ <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/24299-los-delitos-faltas-descienden-euskadi-2014>. Azken berrikuspena: 2015/04/08

[Aurkibidea](#)

BLZ zerbitzu unibertsala eta doakoa da, biktimizatuta sentitu diren gizonei eta emakumeei arreta ematen diena. Sexuari erreparatuz gero, emakumeak etortzen dira gehienbat zerbitzura: arreta jaso dutenen % 85 emakumeak dira. Hala ere, datu estatistiko horren bidez (erabat erreala dena), ez da pentsatu behar genero-indarkeriako kasuak daudenik bakarrik. Egia da, BLZko erabiltzaileak, batik bat, emakumeak direla, baina kasu guztietan, ez dira emakumeok zuzeneko biktimak, eta hala badira, kasu guztietan hala izaten ez den arren, emakume horien biktimarioa beren bikotekidea da (edo bikotekidea izan da). Inguruabar horren azalpena zifretatik harago bilatu behar da eta gizarteko testuinguruan jarri behar da; horrela, ondoriozta daiteke azalpena gure gizartearen testuinguru historiko nahiz sozialeko rolen sisteman dagoela.

Lehenengo arrazoia da, eta horixe da nabarmenena, genero indarkeriako auzien kopuru handi bat (% 51.89) dagoela; betiere, auzi horiek legeak bide penaletik azaltzen duen eran ulertuta. Baina bide penal hori, aldi berean, Lege Integralean oinarritzen da eta gizonen nahiz emakumeen arteko iruditeria kolektiboan dauden desberdintasun handietan errotuta dago.

Balioen sistema tradizional eta patriarkal horrexek emakumeak BLZra etorrarazten ditu laguntza eskatzera, bai haientzat bai beren familientzat edota hurbileko pertsonentzat:

- i. Emakume biktimizatuak gizon biktimizatuak baino zailtasun gutxiago ditu laguntza eskatzeko. Desberdintasun horren azalpena, batetik, rol tradizionalen sisteman dago, eta, bestetik, gizonen nahiz emakumeen arteko desberdintasuna azpimarratzeko gizarteak erabili dituen mekanismoetan. Gizonak uste du biktimizazioa bere maskulinitatearen kontrako eraso bat dela; emakumeak, berriz, ustez duen ahultasuna barneratu du eta laguntza eskatu behar duela onartzen du eta hori egiteko legitimatuta dagoela ere uste du.
- ii. Maskulinitate tradizionalaren ezaugarri nagusiak indarra eta ausardia dira, baina, sexua aintzat hartu gabe, gizakiaren ahultasunarekin eta egoera jakin batzuei aurre egiteko nahiz horiek gainditzeko gizakiak duen laguntza-beharrarekin aurrez aurre talka egiten dute. Hala, maskulinitatearen kontzeptu sozial horixe da gizonari beldur-sentimenduak bizitzen eta adierazten uzten ez diona, eta, horrez gain, ez dio uzten bere buruari ezta gizarteari ere duen ahultasuna adierazten.

[Aurkibidea](#)


- iii. Emakumeek pairatutako biktimizazioen jatorria ez dago soilik bikotearen dinamika biolento batean, zeren horiek beste alor batzuetan gerta daitezke eta, egiatan, hala gertatzen dira.
- iv. Emakumea bere hurbileneko zirkuluaren zaintzaile nagusia den ideari jarraikiz, taldeko kideetako bat biktimizatzen bada, erantzuteko gai diren sareak ezartzeko eta/edo bilatzeko ardura dute emakumeek, eta, horrela, galdutako oreka lehengorutzen da.

Biktima emakumea den eta biktimarioa gizona edo bere bikotekidea den genero-indarkeria da, BLZn arreta gehien jasotzen duen biktimizazio-era. Hala ere, hori ez da biktimizazio-era bakarra. Horrela, familia barruko indarkeria (famiaren barnean gauzatzen den indarkeria), biktimarioaren nahiz biktimaren sexua eta beren arteko harremana erabakigarria ez den indarkeria hori, bigarren postuan dago. Hirugarren postuan, kasuen % 15,80rekin, zigorkodean tipifikatutako gainerako delituak eta faltak daude, eta, bereziki, lesioak, mehatxuak eta sexu-erasoak nabarmentzen dira.

Kartzelatik ateratzeagatiko jakinarazpenei buruzko atala bereziki aipatu behar da, zeren biktimaren bigarren biktimizazioa prebenitzeko pentsatu zen funtzio bat da, eta 2014an, guztira, 1.458 jakinarazpen kudeatu ziren.


**1. BILAKAERA 2012-2014 BITARTEAN**

	2012	2013	2014
ARABA	588	714	675
BIZKAIA	1.780	1.761	1.581
GIPUZKOA	1.228	1.138	744
GUZTIRA	3.596	3.613	3.000







**2. ARTATUTAKO PERTSONAK**

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2014. URTEAN	581	1.403	667	2.651
2014 BAINO LEHENAGOKOAK	94	178	77	349
GUZTIRA	675	1.581	744	3.000



**3. BIKTIMIZAZIOA SEXUAREN ARABERA**


	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
GIZONAK	68	% 10,07	238	% 15,05	150	% 20,16	456	% 15,20
EMAKUMEAK	607	% 89,93	1.343	% 84,95	594	% 79,84	2.544	% 84,80
GUZTIRA	675		1.581		744		3.000	







4. BLZ-ra JOATEKO ARRAZOIAK²

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
DELITU OROKORRAK³	176	630	294	1.100
GENERO INDARKERIA	499	882	386	1.767
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA	102	265	171	538
GUZTIRA	777	1.777	851	3.405



² 5. ataleko biktimizazio-arrazoia biltzen dituzten hiru kategoriatan sailkatzen dira arrazoia. Kategoria horiek, hain zuzen ere, BLZko lanaren funtsa ordeztzen dute (delitu orokorra, genero-indarkeria eta familiaren barneko indarkeria).

³ Delitu orokorrak: delitu horiek gauzatu/biktimizatu direnean, genero-indarkeriaren eta familiaren barneko kategoriek zerikusirik ez duten delituak dira.



**5. BIKTIMIZAZIOAREN ARRAZIOAK****5.1. DATU OROKORRAK**

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Gizahilketa	Gizahilketa	14	21	4	39
	Gizahilketa saiakera	7	21	7	35
Lesioak		71	107	99	277
Tratu txarrak	Genero-indarkerian	372	816	290	1.478
	Familia barruko indarkerian	59	209	120	388
Askatasunaren aurkako erasoak	Mehatxuak	57	72	88	217
	Bullyinga	1	9	0	10
	Hertsapenak	13	39	12	64
	Legez kontrako atxiloteta eta bahiketa	3	7	3	13
	Mobbinga	1	4	1	6
Tortura eta osotasun moralaren aurkako bestelako delituak		1	0	0	1
Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren kontra	Sexu-gehiegikeria	24	50	12	86
	Sexu-jazarpena	0	4	0	4
	Sexu-erasoa	23	56	22	101
	Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa	1	27	7	35
	Prostituzioari eta adingabeak galbidean jartzeari dagozkienak	1	3	0	4

[Aurkibidea](#)

Intimitatearen kontra, norberaren irudia edukitzeko eskubidearen kontra eta egoitzaren bortxaezintasunaren kontra	Bizilekua bortxatzea	0	1	0	1
	Sekretuak erakustea eta ezagutaraztea	2	25	1	28
Ohorearen aurkako erasoa	Kalumniak	0	6	8	14
	Irainak	8	8	4	20
Familia-harremanen aurka	Familia, adingabeak edo ezinduak abandonatzea	7	3	2	12
	Familiako eskubideen eta betebeharren kontra	12	33	17	62
	Adingabeak ostea	0	3	2	5
Ondarearen kontra	Bidegabeko jabetzea	2	9	3	14
	Kalteak	1	9	2	12
	Iruzurra	5	23	6	34
	Estortsioa	0	1	0	1
	Ebasketa	0	9	1	10
	Lapurreta	9	37	13	59
	Ibilgailu- erabileraren lapurreta eta ebasketa	0	0	1	1
	Usurpazioa	0	2	1	3
Segurtasun kolektiboaren kontra	Bide-segurtasuna	1	5	16	22
Justizia Administrazioaren kontra	Kondena haustea	20	12	2	34
Ordena publikoaren kontra	Terrorismokoak	0	1	1	2
	Desordena publikoak	0	1	0	1


[Aurkibidea](#)

Faltsukeriak	Agiri-faltsutzeak	2	3	0	5
Beste batzuk⁴		37	123	92	252
Pertsonen aurkako faltak		22	11	12	45
Ondarearen aurkako faltak		1	5	1	7
Interes orokorraren aurkako faltak		0	0	1	1
	GUZTIRA	777	1.775	851	3.403

⁴ Delitu-egitateetatik ez datozen auziek, BLZko funtzio espezifikoak ez badira ere, tratamendu egokia jasotzen dute eskatzaileari bere egoera bideratzeko. Gai horien jatorria auzi zibiletan, erlazio- nahiz elkarbizitza-zailtasunetan, bikote-gatazketan, osasun mentalean eta antzerakoetan dago.



**BIKTIMIZAZIO-ARRAZOIA
DATU OROKORRAK**





5.2. DATUAK, BIKTIMEK LAGUNTZA JASOTZEKO ARRAZOIEN ARABERA

5.2.1. DELITU OROKORRAK

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Gizahilketa	Gizahilketa	9	17	4	30
	Gizahilketa-saiakera	1	14	7	22
Lesioak		32	86	52	170
Askatasunaren kontra	Mehatxuak	11	47	37	95
	Bullyinga	1	9	0	10
	Hertsapenak	6	33	8	47
	Legez kontrako atxiloketa eta bahiketa	0	7	3	10
	Mobbinga	1	4	1	6
Tortura eta osotasun moralaren aurkako bestelako delituak		1	0	0	1
Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren kontra	Sexu-gehegikeria	17	46	11	74
	Sexu-jazarpena	0	4	0	4
	Sexu-erasoa	14	51	19	84
	Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa	1	27	7	35
	Prostituzioari eta adingabeak galbidean jartzeari dagozkienak	1	0	0	1
Intimitatearen kontra, norberaren irudia edukitzeko eskubidearen kontra eta egoitzaren bortxaezintasunaren kontra	Bizilekua bortxatzea	0	1	0	1
	Sekretuak erakustea eta ezagutaraztea	2	24	1	27
Ohorearen aurkako erasoa	Kalumniak	0	6	8	14
	Irainak	4	6	3	13
Familia-harremanen kontra	Familia, adingabeak edo ezinduak abandonatzea	5	3	1	9
	Familiako eskubideen eta betebeharren kontra	10	24	14	48
	Adingabeak oatea	0	2	2	4


.../...



.../...

Ondarearen kontra	Bidegabeko jabetzea	2	9	3	14
	Kalteak	0	8	2	10
	Iruzurra	4	22	6	32
	Estortsioa	0	1	0	1
	Ebasketa	0	9	1	10
	Lapurreta	9	37	13	59
	Ibilgailu-erabileraren lapurreta eta ebasketa	0	0	1	1
	Usurpazioa	0	1	1	2
Segurtasun kolektiboaren kontra	Bide-segurtasuna	1	5	16	22
Justizia Administrazioaren kontra	Kondena urratzea	1	0	1	2
Ordena publikoaren kontra	Terrorismokoak	0	1	1	2
Faltsukeriak	Agiri-faltsutzeak	2	3	0	5
Beste batzuk ⁵		29	108	61	198
Pertsonen aurkako faltak		11	10	9	30
Ondarearen aurkako faltak		1	5	0	6
Interes orokorraren aurkako faltak		0	0	1	1
GUZTIRA		176	630	294	1.100

⁵ Delitu-egitateetatik ez datozen auziek, BLZko funtzio espezifikoak ez badira ere, tratamendu egokia jasotzen dute eskatzaileari bere egoera bideratzeko. Gai horien jatorria auzi zibiletan, erlazio- nahiz elkarbizitza-zailtasunetan, bikote-gatazketan, osasun mentalean eta antzerakoetan dago.






5.2.2. GENERO INDARKERIA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Gizahilketa	Gizahilketa	5	4	0	9
	Gizahilketa-saiakera	5	4	0	9
Lesioak		23	10	22	55
Tratu txarrak	Genero-indarkerian	372	816	290	1.478
Askatasunaren kontra	Mehatxuak	36	7	36	79
	Hertsapenak	7	3	3	13
	Legez kontrako atxiloketa eta bahiketa	2	0	0	2
Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren kontra	Sexu-gehegakeria	3	2	1	6
	Sexu-erasoa	7	5	3	15
	Prostituzioari eta adingabeak galbidean jartzeari dagozkienak	0	3	0	3
Intimitatearen kontra, norberaren irudia edukitzeko eskubidearen kontra eta egoitzaren bortxaezintasunaren kontra	Sekretuak erakustea eta ezagutaraztea	0	1	0	1
Ohorearen aurkako erasoa	Irainak	4	1	0	5
Familia-harremanen kontra	Familia, adingabeak edo ezinduak abandonatzea	2	0	1	3
	Familiako eskubideen eta betebeharren kontra	2	5	2	9
	Adingabeak ostea	0	1	0	1
Ondarearen kontra	Kalteak	1	0	0	1
	Iruzurra	0	1	0	1
	Usurpazioa	0	1	0	1
Justizia Administrazioaren kontra	Kondena urratzea	15	4	1	20
Beste batzuk ⁶		7	11	26	44
Pertsonen aurkako faltak		7	1	0	8
Ondarearen aurkako faltak		0	0	1	1
GUZTIRA		498	880	386	1.764

⁶ Delitu-egitateetatik ez datozen auziek, BLZko funtzio espezifikoak ez badira ere, tratamendu egokia jasotzen dute eskatzaileari bere egoera bideratzeko. Gai horien jatorria auzi zibiletan, erlazio- nahiz elkarbizitza-zailtasunetan, bikote-gatazketan, osasun mentalean eta antzerakoetan dago.






5.2.3. FAMILIA BARRUKO INDARKERIA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Gizahilketa	Gizahilketa-saiakera	1	3	0	4
Lesioak		16	11	25	52
Tratu txarrak	Familia barruko indarkerian	59	209	120	388
Askatasunaren kontra	Mehatxuak	10	18	15	43
	Hertsapenak	0	3	1	4
	Legez kontrako atxiloteta eta bahiketa	1	0	0	1
Sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren kontra	Sexu-gehiegikeria	4	2	0	6
	Sexu-erasoa	2	0	0	2
Ohorearen aurkako erasoa	Irainak	0	1	1	2
Familia-harremanen kontra	Familiako eskubideen eta betebeharren kontra	0	4	1	5
Ondarearen kontra	Kalteak	0	1	0	1
	Iruzurra	1	0	0	1
Justizia Administrazioaren kontra	Kondena urratzea	4	8	0	12
Ordena publikoaren kontra	Desordena publikoak	0	1	0	1
Beste batzuk⁷		1	4	5	10
Pertsonen aurkako faltak		4	0	3	7
GUZTIRA		103	265	171	539

⁷ Delitu-egitateetatik ez datozen auziek, BLZko funtzio espezifikoak ez badira ere, tratamendu egokia jasotzen dute eskatzaileari bere egoera bideratzeko. Gai horien jatorria auzi zibiletan, erlazio- nahiz elkarbizitza-zailtasunetan, bikote-gatazketan, osasun mentalean eta antzerakoetan dago.





6. ARRETA JASO DUTEN KASUAK

6.1. INFORMAZIO OROKORRA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Informazio orokorra	Aurrez aurrekoa	224	277	138	639
	Telefono bidezkoa	442	911	558	1.911
GUZTIRA		666	1.188	696	2.550

6.2. HARRERAKO ELKARRIZKETAK

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Harrerako elkarrizketak		189	495	240	924
GUZTIRA		189	495	240	924

6.3. JARRAIPENEO ELKARRIZKETAK

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Jarraipeneko elkarrizketak		170	935	221	1.326
GUZTIRA		170	935	221	1.326

**6.4. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA**

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Doako laguntza juridikoari buruzko aholkularitza	31	156	33	220
GUZTIRA	31	156	33	220

6.5. DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO AHOLKULARITZA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Diru-laguntzei buruzko aholkularitza	Indarkeriazko delituengatik	2	12	2	16
	Genero-indarkeriarengatik	38	15	1	54
GUZTIRA		40	27	3	70

6.6. ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Esku-hartze psikologikoak		214	212	299	725
GUZTIRA		214	212	299	725

6.7. INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Informazio eta aholkularitza juridiko espezifikoa		233	302	130	665
GUZTIRA		233	302	130	665



6.8. KOORDINAZIOA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Koordinazioa	Administrazio autonomikoarekin	124	163	12	299
	Justizia-administrazioarekin	321	991	97	1.409
	Estatuko administrazioarekin	64	110	2	176
	Foru-administrazioarekin	82	70	10	162
	Toki administrazioarekin	147	61	42	250
	Lanbiderekin	1	1	0	2
	Osakidetzarekin	4	13	7	24
	Beste batzuekin	16	302	34	352
	AJZrekin / autonomia-erkidegoarekin	37	66	2	105
	Laguntza-elkarte pribatuekin	5	6	2	13
GUZTIRA		801	1.783	208	2.792

6.9. DESBIDERATZEA

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Desbideratzea:	Beste autonomia-erkidego batera	11	4	0	15
	Justizia-administrazioa	2	5	3	10
	Foru-administrazioa	59	46	1	106
	Tokiko administrazioa	24	4	2	30
	Lanbidera	13	3	0	16
	Osakidetzara	1	2	0	3
	Beste batzuetara	5	8	2	15
	AJZera / autonomia-erkidegora	5	1	0	6
	Laguntza-elkarte pribatura	0	10	2	12
GUZTIRA		120	83	10	213



6.10. LAGUNTZA PSIKOSOZIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Laguntza psikosoziala eginbide judizialean	Agerraldian	29	4	7	40
	Dekanotzan	12	2	2	16
	Deklarazioan	5	6	2	13
	Epaiketan	42	64	21	127
	Beste zerbitzu judizial batzuetan	43	11	9	63
	AJZn	1	23	10	34
	Epaiketa prestatzen	7	2	4	13
GUZTIRA		139	112	55	306

6.11. LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN


		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Lankidetzak justizia administrazioarekin	Aditu-jarduera	1	15	0	16
	Defendatzaile judiziala	0	4	1	5
	Txostenak prestatzea	7	20	1	28
	Babes-neurrien idatziak	1	21	3	25
GUZTIRA		9	60	5	74





6.12. KANPO-AHOLKULARITZA


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Kanpo-aholkularitza	40	13	16	69
GUZTIRA	40	13	16	69

ARRETA JASO DUTEN KASU GUZTIAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
GUZTIRA	3.334	6.071	1.987	11.392











GLOSARIOA

—ARRETA-EMATEEI BURUZKO DEFINIZIOA—

- 1) **INFORMAZIO OROKORRA:** Biktimak planteatutako gai desberdinei (eskubideei, salaketak jartzeari, Doako Aholkularitza Juridikoari, laguntzari, gai judizialei, esku-hartzei eta antzerakoei) buruzko informazio orokorra emateko jarduketa, biktimaren egoeraren azterketa sakonik eskatzen ez duena.
- 2) **LAN-ELKARRIZKETA:** Biktimarekin lehenengo harremana izaten den jarduketa, konfiantza-giroa sortzen eta behar den informazioa lortzen laguntzen duena. Diagnostikoa egitea eta pertsonak egin beharreko ibilbidea antolatzea da helburua, errehabilitatu eta indartu dadin.
- 3) **JARRAIPENeko ELKARRIZKETAK:** Harrerako elkarrizketan hasitako lana jarraitzen duen jarduketa; biktimaren arazoetan sakontzeko, bere beharrak zehazteko, bere egoera baloratzeko eta, halakorik bada, esku-hartzea zuzentzeko eta/edo aldatzeko aukera ematen duena.
- 4) **DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA (DLJ):** DLJn biktimak eskaera egin dezan, biktima informatzeko eta hari aholkularitza emateko jarduketa, eskatzailearen eta bere dokumentuen baldintza partikularrak aztertzen dituen. BLZk beharrezkotzat jotzen badu, biktimaren baldintzak aintzat hartuta, Orientazio Juridikoko Zerbitzura eta bestelako sareetara joateko laguntza emango da jarduketa honetan.
- 5) **DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO AHOLKULARITZA:** Biktima diru-laguntzei buruz informatzeko eta hari aholkularitza emateko jarduketa. Genero-indarkeriaren kontrako babes integralaren neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta delitu biolentoetako eta sexu-askatasunaren kontrako biktimei diru-laguntzak eta laguntza emateari buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legean araututako diru-laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza ematen duena.
- 6) **ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA:** Alderdi psikologikotik esku hartzeko jarduketa, delitu bat bizitzearen ondorioz, galdutako edo suntsitutako trebetasunak eta tresnak berreskuratzeke balio duena. Hainbat esku-hartze mota daude: lehenengo balorazioak, krisietako esku-hartzeak, elkarrizketa terapeutikoak eta tratamendu-jarraipenak.

[Aurkibidea](#)

- 7) **INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA:** Edozein gai juridikori buruz biktima orientatzeko jarduketa, batez ere biktimak prozesu judizialari eta salaketa bat jartzeari buruz dituen zalantzak argitzen dituen.
- 8) **KOORDINAZIOA:** Hainbat erakunde publikorekin eta pribaturekin biktimaren esku-hartzea koordinatzeko jarduketa.
- 9) **DESBIDERATZEA:** Biktimak tratamendu bio-psiko-sozialarekin jarrai dezan, biktima erakunde publikoetara eta pribatuetara bidaltzeko behar den kudeaketa egiteko jarduketa.
- 10) **LAGUNTZA PSIKOSOZIALA AURRETIAZKO EGINBIDE JUDIZIALETAN:** Biktima instantzia judizialekin harremanetan jartzen denean, laguntza emateko jarduketa. Prozedura judizialak sortzen duen inpaktu emozionala arintzea da helburua. Pertsonaren beharren arabera, jarduketak pertsonak prozesuan parte hartu aurrekoak izan daitezke (epaitegietara, antzeko epaiketatarara eta antzerakoetara laguntzea) edo eginbide judizialekara eta biktimaren prozesuko epaiketara bakarrik lagun daiteke.
- 11) **LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN:** Epaitegiek hala eskatuta edo BLZren ekimenez, BLZk epaitegiekin egiten dituen lankidetzajarduketak: txostenak egitea eta babes-neurrien idatziak egitea, peritu eta lekuko gisa jardutea, defendatzaile judizialarekin lankidetzan aritzea, etab.
- 12) **KANPO-AHOLKULARITZA:** BLZri hainbat kontsulta planteatzen dizkieten zenbait profesionali informazioa eta aholkularitza emateko jarduketa.